

Funtsezko jarduerak

Lehenik eta behin, beharrezkoak diren jarduera guztietatik lanaren banaketa egin behar da, taldeko kide bakoitzari egiteko gauza zehatzak eman eta bakoitzaren gaitasunak kontuan izan. Proiektua gelditzen duten arazoak identifikatzea eta azkar konpontzea ere garrantzitsua izango da jarraitu ahal izateko, horretarako guztiok komunikazio ona izan behar dugu. Ez bakarrik lanak zatitzeko, baita ulertzen ez duguna argitzeko gure artean, elkarri laguntzeko eta horrelako gauzak ere.

Baliabideen kudeaketa ere ezinbestekoa da, beharrezko materialak eta produktuak lortzeko hornitzaileak bilatu eta prezio eta kalitatearen arteko oreka egokia bilatu behar dugu. Ekoizpen prozesua ondo antolatu behar da, materialak prestatu eta tresnak egokitu, lanak denbora eta baliabideekin modu produktiboan eta koordinatuan aurrera eramateko. Azkenik, jarrera egokia eta jarraipena behar izango dugu. Egin beharrekoak diren gauzak bete direla ziurtatu eta proiektua behar bezala mantentzeko aldaketak egin behar diren ala ez begiratu.